

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea Aguraingo Udalaren eta Kutxabanken (Harri Iparra SAU) arteko hirigintza hitzarmena aldatzeari, Curtidos BBPBa garatzeko

Aguraingo udalak, 2019ko otsailaren 14ko ezohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Aguraingo Udalaren eta Kutxabanken (Harri Iparra SAU) arteko hirigintza hitzarmenari, Curtidos BBPBa garatzeko. Aldaketa honetan datza: "Curtidos-Harresi" UE-49.1 egikaritze-unitate eteneko hirigintza antolamendu eta kudeaketa tresna guztiak izapidetzeko eta onesteko epea luzatzean. Hona hemen agiriaren testua:

Luzatzea "Curtidos-Harresi" UE-49.1 egikaritze-unitate eteneko hirigintza antolamendu eta kudeaketa tresna guztiak izapidetzeko eta onesteko epea

Agurain, 201..koaren(a).

Bildutakoak

Batetik: jauna, adinez nagusia,ko biztanlea, NAN zenbakia duena.

Eta bestetik: Iñaki Beraza Zufiaur jauna, Aguraingo Udaleko alkate-lehendakaria, zeinaren datu pertsonalak isilean gordetzen diren bere kargua dela-eta jarduten duelako.

Agertu dira

..... Jauna, "Harri Iparra SAU" merkataritza enpresako administratzailea, zeinak Bilboko Ertzila kaleko 24ko 2. solairuan duen egoitza eta A-95707444 IFZ duen; eta

Iñaki Beraza Zufiaur jauna, Aguraingo Udaleko alkate-lehendakaria den aldetik, 2019koaren(e) ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera akordio hau sinatzeko ahalmena daukana.

Bertaratutakoek ahalmen nahikoa dute eta legezko gaitasuna ondoren adierazten dena hitzartzeko eta elkar behartzeko, eta hala aitortzen diote elkarri, eta ez aurkaratzera behartzen dute elkar. Gaitasun hori baliatuz eta hitzartuko dutenaren aurretik,

Adierazten dute

Lehenengoa. Harri Iparra SAU enpresak eta Aguraingo Udalak hirigintza hitzarmen bat izenpetu dutela Aguraingo "Curtidos-Harresi" UE-49.1 egikaritze-unitate etena garatzeko.

Bigarrena. Hitzarmen horren 2.b.iii) hizpaketak hau xedatzen duela:

" hirigintza antolamendu eta kudeaketa tresna guztiak (HJP eta birpartzelazio proiektua barne) aldi berean izapidetu eta behin betiko onetsi beharko dira, eta baldintza honetan ezarritakoak ondorioak izan ditzan, 2019ko otsailaren 15a baino lehen egin beharko da. Hori horrela egingo ez balitz, hitzarmen hau eragin juridikorik gabe geldituko litzateke izenpetzen duten bi aldeentzat."

Hirugarrena. Egun, Aguraingo Udalak hasierako onespena eman die kudeaketa hitzarmenari eta aipatutako eremuko UJP. Ezinbestekoa da agiri horiek behin betiko onestea ituntze-batzarra eratzeko eta birpartzelazio proiektua idazteko.

Laugarrena. Agiri horiek jendaurrean jartzeagatik, ezinezkoa da 2019ko otsailaren 15ean onetsita egotea hirigintza antolamendu eta kudeaketa tresnak, barne UJPa eta birpartzelazio proiektua.

Hirigintza operazio honek zuzenean eragiten dionez xedapen zatiko lehen atalean aipatu diren eta Harri Iparrar SAU enpresaren jabetzakoak diren lurzatiaren egoera juridiko-urbanistikoari, eta bi aldeek interesa dutenez Aguraingo "Curtidos-Harresi" UE-49.1 egikaritze-unitate etenenaren berrantolaketan, eta biek helburu hori bera dutenez, Aguraingo Udalak eta Harri Iparrar SAUk hau

Erabakitzen dute

"Curtidos-Harresi" UE-49.1 egikaritze-unitate etena garatzeko hirigintza hitzarmeneko 2.b.iii) hizpaketa aldatzea. Hizpaketa horrek aurrerantzean testu hau izango du:

"Hirigintza antolamendu eta kudeaketa baliabide guztiak (HJP eta birpartzelazio proiektua barne) aldi berean izapidetu eta behin betiko onetsi beharko dira, eta baldintza honetan ezarritakoak ondorioak izan ditzan, 2019ko maiatzaren 15a baino lehen egin beharko da. Hori horrela egingo ez balitz, hitzarmen hau eragin juridikorik gabe geldituko litzateke izenpetzen duten bi aldeentzat."

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Hitzarmenaren aldaketa hori jendaurrean jarriko da hogeita egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, interesdunek espedientea aztertu eta, hala badagokio, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak egin ahal izan ditzaitez. Hitzarmen hau behin betiko onetsiko da alegaziorik aurkezten ez bada.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzaitez argitaratzen da.

Agurain, 2019ko otsailaren 19a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR